

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.
Bilera-mota: apartekoa.
Eguna: 2007/07/20
Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 19:52
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, ANV.
Mikel Alzelai Zulaika, ANV.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, ANV.
Ane Urkiola Alustiza, EJ
Francisco Javier Iraeta Álvarez, EJ.
Juan Miguel Urrutia Castellón, EJ.
Juan Ramón Larrañaga Mercero, EA.
Aranzazu Arizmendi Gereñu, EA.
Vicente Garmendia Martinez, EA.
Iñaki Sánchez Gastañares, IU-Berdeak.
Ana Salinero Maestre, IU-Berdeak.
Oscar Jose L. Murillo Perez, PSE.
Jose Morcillo Guerrero, PSE.
Fernando Arakama Fernandez,
kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Aztergaiak:

1. Udalbatzaren bilkuren maiztasuna.
2. Batzorde informatiboak sortu eta osatzea.
3. Kide anitzeko organoetako ordezkariak izendatzea.
4. Izendapenei buruz Alkatetzak eman dituen Ebazpenak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Udalbatzaren bilkuren maiztasuna

Hitza hartu ondoren, Alkate Jaunak ohiko Udalbatzak hilabetero egitea proposatu du. Dagokion hilaren azkeneko asteazkenean, arratsaldeko 19:30an izango dira, baina jaieguna izanez gero, bilkura hurrengo asteazkenean izango da ordu berean.

Organo o Comisión: Pleno.
Tipo de Convocatoria: extraordinaria.
Día: 20/07/2007
Hora: Comienzo: 19:30 y final: 19:52
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, ANV.
Mikel Alzelai Zulaika, ANV.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidedain ANV.
Ane Urkiola Alustiza, NV
Francisco Javier Iraeta Álvarez, NV.
Juan Miguel Urrutia Castellón, NV.
Juan Ramón Larrañaga Mercero, EA.
Aranzazu Arizmendi Gereñu, EA.
Vicente Garmendia Martinez, EA.
Iñaki Sánchez Gastañares, IU-Berdeak.
Ana Salinero Maestre, IU-Berdeak.
Oscar Jose L. Murillo Perez, PSE.
Jose Morcillo Guerrero, PSE.
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario

Orden del Día:

1. Periodicidad de sesiones del Pleno.
2. Creación y composición de comisiones informativas.
3. Nombramientos de representantes en órganos colegiados.
4. Resoluciones de Alcaldía en materia de nombramientos.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1.- Periodicidad de sesiones del Pleno

Toma la palabra el Sr. Alcalde para proponer la celebración de un pleno ordinario cada mes, celebrándose el último miércoles del mes correspondiente, a las 19:30 horas, y si éste coincidiera en festivo, la sesión correspondiente tendría lugar el miércoles siguiente, a la misma hora.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

Gaia erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da Alkatearen proposamena.

2.- Batzorde informatiboak sortu eta osatzea.

Alkate Jaunak hartu du hitza eta Osoko Bilkurari Batzordeen kopuruari buruz duen proposamena jakinarazi dio. 13 batzorde informatibo eratzea proposatu du. Batzorde bakoitzean Lehendakari bat egongo da eta talde politiko bakoitzetik zinegotzi bat izendatuko da bertan parte hartzeko.

- 1.- HIRIGINTZA, ZERBITZUAK ETA OBRAK.
- 2.- ETXEBIZITZA, AUZOAK ETA INGURUMENA.
- 3.- PERTSONALA.
- 4.- OGASUNA.
- 5.- GAZTERIA.
- 6.- KIROLAK.
- 7.- HEZKUNTZA.
- 8.- GIZARTE ZERBITZUAK.
- 9.- NEKAZARITZA.
- 10.- AGENDA 21.
- 11.- EUSKARA.
- 12.- INDUSTRIA, ENPLEGUA ETA MERKATARITZA.
- 13.- KULTURA.

Gaia erabakitzeke botoetara jo ondoren, bertaratutako guztiek aho batez onartu dute proposamena.

3.- Kide anitzeko organoetako ordezkariak izendatzea.

Alkate-Lehendakariak hartu du hitza. Lehenbizi, kide anitzeko organoetako Estatutuek diotenaren arabera eta aurreko puntuan onartutakoaren ondorioz, izendapen batzuk automatikoak direla adierazi du. Horrela, adibidez, Alkatea izango da udalaren

Sometida la cuestión a votación, la misma es aprobada por unanimidad de los presentes.

2.- Creación y composición de comisiones informativas.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para dar a conocer su propuesta al Pleno respecto al número de Comisiones. Se propone la creación de 13 comisiones informativas. Cada Comisión se compone de un Presidente y un Concejal por cada Grupo Político.

- 1.- URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS.
- 2.- VIVIENDA, BARRIOS Y MEDIO AMBIENTE.
- 3.- PERSONAL.
- 4.- HACIENDA.
- 5.- JUVENTUD.
- 6.- DEPORTES.
- 7.- EDUCACIÓN.
- 8.- SERVICIOS SOCIALES.
- 9.- AGRICULTURA.
- 10.- AGENDA 21.
- 11.- EUSKARA.
- 12.- INDUSTRIA, EMPLEO Y COMERCIO.
- 13.- CULTURA.

Sometida la propuesta a votación, la misma es aprobada por unanimidad de los presentes.

3.- Nombramientos de representantes en órganos colegiados.

Toma la palabra el Sr. Alcalde-Presidente. En primer lugar quiere aclarar que en virtud de los Estatutos de los órganos colegiados y como consecuencia de lo aprobado en el punto anterior, algunos nombramientos son automáticos. Así, por

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

ordezkari Gipuzkoako Ur Kontsortzioan; Urola Garaia Mankomunitatean Alkatea bera eta Ane Urkiola andrea izango dira ordezkariak eta Alkatea izango da ordezkari Udal Euskaltegia Fundazioan. Herrigintzan Osoko Bilkurak aukeratuko ditu Batzar Orokorreko kontseilariak.

Eta oraindik erabakitzeko geratzen direnak Osoko Bilkuran aukeratu behar dira. Horretarako aukeraketa-prozesu bati ekingo dio batzarrak:

UDAL EUSKALTEGIA FUNDAZIO PUBLIKOA: bi kide aukeratu behar dira. Alkate jaunak Mikel Alzelai eta Erramun Uribeetxeberria zinegotziak proposatu ditu. Erabakia hartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 11 botoekin eta PSE alderdiko zinegotzien abstentzioarekin Mikel Alzelai eta Erramun Uribeetxeberria zinegotziak izendatu dira Udal Euskaltegiko ordezkari.

SASIETA: Bi kide eta bi ordezkari izendatu behar dira batzorde exekutiborako. Alkate-Lehendakariak lau ordezkari horiek bera, Iñaki Sanchez, Erramun Uribeetxeberria eta Ana Salinero izatea proposatu du.

Ane Urkiola andreak hartu du hitza eta beraiek beste proposamen bat dutela eta nola aurkeztuko duen galdetu du.

Alkate jaunak bere ustez emendakina aurkeztu beharko luketela erantzun du eta, ondoren botoen bidez erabakiko litzateke.

Iñaki Sanchez jaunak hartu du hitza eta emendakin hori zein taldek aurkeztu duen galdetu du. Halaber, bestelako proposamena egonez gero, bere ustez organo horietan Udala nortzuk ordezkatzeko duten izendatu beharko lirateke eta Alkatearen proposamenarekin alderatzeko aurkeztu.

ejemplo, el Alcalde es el representante en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, en la Mancomunidad Urola Garaia los representantes serán el propio Alcalde y Ane Urkiola y también el Alcalde será miembro de la Fundación Euskaltegi Municipal. En Herrigintza el Pleno como Junta General elige a los Consejeros.

Respecto a los nombramientos que quedan pendientes hay que proceder a su elección a través de una votación en el Pleno:

FUNDACIÓN PÚBLICA EUSKALTEGI MUNICIPAL: Hay que elegir dos vocales. El Alcalde propone a Mikel Alzelai y Erramun Uribeetxeberria. Con 11 votos a favor y dos abstenciones de los concejales del PSE se acuerda nombrar vocales para el Euskaltegi Municipal a Mikel Alzelai y Erramun Uribeetxeberria.

SASIETA: Hay que elegir a dos vocales y dos suplentes para la Comisión Ejecutiva. El Alcalde-Presidente se propone a sí mismo, a Iñaki Sánchez, a Erramun Uribeetxeberria y Ana Salinero.

Toma la palabra Ane Urkiola para exponer que existe otra propuesta y pregunta como articularla.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para contestar que a su juicio deberían de presentar una enmienda y en consecuencia se votaría la misma.

Toma la palabra Iñaki Sánchez para preguntar que grupo presenta la enmienda y señala que a su juicio deberían de designar a las personas que representarán al Ayuntamiento en los órganos en cuestión en contraposición a la propuesta del Alcalde.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

Idazkariak emendakin hori nork aurkezten duen galdetu du. Ane Urkiola bere taldeak eta EA eta PSE alderdiek adostutako emendakinak direla erantzun du.

Ane Urkiola andreak hartu du hitza eta honako ordezkariak proposatu ditu Sasieta mankomunitaterako: Vicente Garmendia eta Jose Morcillo titular eta Oscar Murillo eta Arantza Arizmendi ordezkari. Emendakina erabakitzeke botoetara jo ondoren EJ, EA eta PSE alderdien aldeko 8 botorekin eta ANV eta Ezker Batua-Berdeak alderdien aurkako 5 botorekin onartu da. Ondorioz, Sasieta Mankomunitatean Vicente Garmendia eta Jose Morcillo zinegotziak izango dira ordezkari titularrak eta Oscar Murillo eta Arantza Arizmendi ordezkariak.

INDUSTRIALDEA: Ordezkaritza bat aukeratu behar da. Alkate jaunak bere burua aurkeztu du ordezkari izateko.

Ane Urkiola andreak hartu du hitza eta bere taldeak EA eta PSE alderdiekin batera emendakina aurkeztu nahi duela jakinarazi du. Horren arabera, bere burua aurkeztu du Industrialdeako ordezkari izateko. Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren EJ, EA eta PSE alderdien aldeko 8 botorekin eta ANV eta Ezker Batua-Berdeak alderdien aurkako 5 botorekin onartu da.

Beraz, Ane Urkiola zinegotzia izendatu da Industrialdean Legazpiko Udaleko ordezkari izateko.

LENBUR FUNDAZIOA: Osoko Bilkurak 3 ordezkari izendatu behar ditu Fundazioko patronaturako. Alkateak hauek proposatu ditu: Sotero Plazaola, Iñaki Sanchez eta Mikel Alzelai.

Ane Urkiola andreak hartu du hitza eta bere taldeak EA eta PSE alderdiekin batera emendakina aurkeztu nahi duela jakinarazi

Interviene el Secretario para preguntar quien presenta la enmienda. Ane Urkiola contesta que son enmiendas transaccionadas por su grupo, el de EA y el del PSE.

Toma la palabra Ane Urkiola para presentar como titulares a Vicente Garmendia y José Morcillo y suplentes a Óscar Murillo y Arantza Arizmendi. Se somete a votación la enmienda, aprobándose la misma con 8 votos a favor de los Grupos NV, EA y PSE y con 5 votos en contra, los de los grupos de ANV y Ezker Batua-Berdeak. En consecuencia, quedan nombrados como vocales titulares para la mancomunidad de Sasieta Vicente Garmendia y José Morcillo y como suplentes a Óscar Murillo y Arantza Arizmendi.

INDUSTRIALDEA: Hay que elegir un representante. Por parte del Alcalde se propone a Sotero Plazaola.

Toma la palabra Ane Urkiola para presentar una enmienda conjunta de su grupo, el de EA y el del PSE, proponiendo a Ane Urkiola. Se somete a votación la enmienda, aprobándose la misma con 8 votos a favor de los Grupos NV, EA y PSE y con 5 votos en contra, los de los grupos de ANV y Ezker Batua-Berdeak.

Por tanto queda designada como representante del Ayuntamiento de Legazpi en Industrialdea Ane Urkiola.

LENBUR FUNDAZIOA: El Pleno ha de elegir 3 representantes en el patronato. El Alcalde propone a Sotero Plazaola, Iñaki Sánchez y Mikel Alzelai.

Toma la palabra Ane Urkiola para presentar una enmienda conjunta de su grupo, el de EA y el del PSE, proponiendo a

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

du. Horren arabera, Javier Iraeta, Oscar Murillo eta Juan Ramon Larrañaga proposatu ditu. Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, EJ, EA eta PSE alderdien aldeko 8 botorekin eta ANV eta Ezker Batua-Berdeak alderdien aurkako 5 botorekin onartu da.

Ondorioz, Javier Iraeta, Oscar Murillo eta Juan Ramon Larrañaga zinegotziak izendatu dira Lenbur Fundazioaren Patronatuko ordezkari izateko.

4.- Izendapenei buruz Alkatetzak eman dituen Ebazpenak.

Alkate jaunak hartu du hitza eta Dekretu bidez lehen Alkateorde Mikel Alzelai izendatu duela eta bigarren Alkateorde Erramun Uribeetxeberria izendatu duela jakinarazi du. Bestalde, Gobernu Batzordea Sotero Plazaola, Mikel Alzelai eta Erramun Uribeetxeberria zinegotziek osatuko dute.

Ondoren, hitz egiteko txandari eman zaio hasiera eta talde politiko guztiek hartu dute hitza.

Lehenik eta behin, Ezker Batua-Berdeak taldearen bozeramaileak hartu du hitza. Ahalegindu arren, Ezker Batua Berdeak alderdiak eta EAE-ANV alderdiak ez dugu gobernu-hitzarmenik lortu Legazpin, egoera politikoaren inguruan ditugun desadostasunak gaindiezinak direlako. Nolanahi ere, Legazpiko herriarekiko erantzukizuna dugunez, Ezker Batua Berdeak alderdiaren ustez oso egokia da udal-kudeaketarako zereginetan inplikatzeari. Hori dela eta, udaleko hiru lan-arloren kudeaketa eramateko egin diguten eskaintza onartu dugu. Arlo horietan, hain zuzen ere, ezkerreko ikuspegi progresistaz egingo dugu lan.

Honako arlo hauek egongo dira EB-Berdeak alderdiaren ardurapean: Etxebizitza,

Javier Iraeta, Óscar Murillo y Juan Ramón Larrañaga. Se somete a votación la enmienda, aprobándose la misma con 8 votos a favor de los Grupos NV, EA y PSE y con 5 votos en contra, los de los grupos de ANV y Ezker Batua-Berdeak.

Por tanto, quedan designados representantes del Ayuntamiento para el Patronato de Lenbur Javier Iraeta, Óscar Murillo y Juan Ramón Larrañaga.

4.- Resoluciones de Alcaldía en materia de nombramientos.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para comunicar que mediante Decreto de Alcaldía se ha nombrado primer teniente de Alcalde a Mikel Alzelai y segundo teniente de Alcalde a Erramun Uribeetxeberria. Por otra parte, la Junta de Gobierno la formarán Sotero Plazaola, Mikel Alzelai y Erramun Uribeetxeberria.

A continuación se inicia un turno de intervenciones por parte de todos los Grupos Políticos.

En primer lugar toma la palabra la portavoz de Ezker Batua-Berdeak Ana Salinero. Comienza diciendo que pese a haberlo intentado, Ezker Batua-Berdeak y ANV no hemos podido alcanzar un acuerdo de gobierno en Legazpi por diferencias insalvables sobre la coyuntura política. No obstante, en un ejercicio de responsabilidad para con el pueblo de Legazpi, desde Ezker Batua-Berdeak hemos considerado oportuno implicarnos en las tareas de gestión municipal. Por ello hemos decidido aceptar el ofrecimiento hecho para llevar la gestión de tres áreas de trabajo municipal, áreas sobre las que trataremos de implementar una visión progresista y de izquierdas.

En concreto EB-Berdeak se encargará de Vivienda, Barrios y Medio Ambiente;

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

Auzoak eta Ingurumena; Ogasuna, Finantzak eta Ondarea; eta Gizarte Zerbitzuak. Azken arlo horretan, gainera, emakumeen gaiari emango diogu lehentasuna. Lehenengo bi arloak Iñaki Sanchez Gastañares zinegotziaren ardurapean egongo dira; eta hirugarrena, Ana Salinero Maestre zinegotziarenean. Hona hemen kudeaketaren oinarri izango diren ardatzak: Legazpiko etxebizitza-politikan eragitea, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena, udalerriko auzoen premiak zein eskariak bideratzeko asmoa eta gizarte-zerbitzuen bultzada, emakumeen, genero-ikuspegiaren eta inmigratioaren inguruan sortutako premia berriak kontuan hartuta.

Behin eta berriro diogu ez dugula inolako gobernu-hitzarmenik sinatu EAE-ANVrekin. Hala ere, etorkizun hurbilean inguruabar orokorrak aldatuz gero, gobernu-hitzarmen egonkorrak lortu ahal izango ditugula uste dugu. Bien bitartean, eskuak aske eta idatzizko loturarik gabe, Legazpiko herriak lanean hasteko eskatzen ari zaigula uste dugu. Beraz, agindu hori betetzeko, udal-kudeaketan lagunduko dugu, eta beste talde politiko batzuen inplikazioa ere lortzeko helburuarekin egingo dugu lan.

Legazpiko herritarrek gudan jarri duten konfiantza eskertzen dugu eta konfiantza horri ondo erantzutea espero dugu; herritarren ongizatea eta bizi-baldintzak hobetzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Ondoren, Ane Urkiola Eusko Jeltzaleak alderdiaren bozeramaileak hartu du hitza. Gobernua osatzeko izan dituzten harremanak dagokienez, bere taldeak gutxienezko puntu batzuk sinatzea eskatu zuela esan du. Erantzunik jaso ez zuten, ezezkotzat hartu zuten. Bestetik, oposizio konstruktiboa egingo dutela esan du eta Legazpirako ona izango diren gaien alde egingo dutela zehaztu du.

Segidan, EA alderdiko bozeramaile Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza.

Hacienda, Finanzas y Patrimonio; y Servicios Sociales con especial incidencia en el tema de la Mujer. De las dos primeras se responsabilizará el concejal Iñaki Sánchez Gastañares y de la tercera la concejal Ana Salinero Maestre. Los ejes sobre los que pivotará la gestión serán el objetivo de incidir en la política de vivienda en Legazpi, fomentando las VPO, la aspiración de canalizar las necesidades y demandas de los barrios del municipio y la potenciación de los servicios sociales abriéndose a nuevas necesidades con relación a la mujer, la perspectiva de género y la inmigración.

Reiteramos que no tenemos ningún acuerdo de gobierno con ANV aunque nuestro deseo es que en un futuro no muy lejano las circunstancias generales nos permitan alcanzar pactos estables de gobierno. Mientras tanto, con las manos libres y sin vínculos escritos, creemos que el pueblo de Legazpi nos está exigiendo que nos pongamos a trabajar y atendiendo ese mandato colaboraremos en la gestión municipal abogando por atraer a otros grupos políticos a una implicación similar.

Agradecemos la confianza que los ciudadanos de Legazpi nos dieron y que esperamos no defraudar, prometiendo trabajar para mejorar su bienestar y condiciones de vida.

Toma la palabra Ane Urkiola, portavoz del Grupo Nacionalistas Vascos. De cara a los contactos para formar gobierno, su grupo solicitó como punto de partida la firma de unos puntos mínimos de acuerdo. Al no obtener respuesta, lo entendieron como una negativa. Por otra parte, señala que harán una oposición constructiva y que apoyarán todo aquello que sea bueno para Legazpi.

Toma la palabra el portavoz de EA Juan Ramón Larrañaga. Opina que hay que formar

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2007/07/20



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

20/07/2007

Gobernua programa baten inguruan osatu behar dela uste du eta oraindik ez dute ANV alderdiaren programa ikusi. ANV alderdiak programa hori lau hilabete barru izango dutela esan du. Bitartean, desadostasun handiena dagoen puntuetan lan egiten saiatu dira. Puntu horiek bakea eta normalizazioa dira eta, alde horretatik gai horren gainean eta zinegotziak bizkartzainik gabe ibiltzeko eskubideari buruz aurreko legealdian aho batez onartu zen Osoko Bilkuraren erabakia berretsi dadila eskatu dute. Ez dute erantzunik jaso eta, beraz, ezezkoa dela ulertu dute.

Jarraian, Jose Morcillo PSE alderdiaren bozeramaileak hartu du hitza. Hasteko, alderdi sozialistak oposizio konstruktiboa egingo duela esan du. Ez dira alderdi sozialista gobernuan sartu eta ezkerreko gobernua osatzeko baldintzak ematen, nahiz eta dirudenez hori izan Legazpiko herritarrek botatu dutena. Funtsezko gaitan ditugu desadostasunak, hala nola, bakea, askatasuna eta giza eskubideak eta horiengatik gaude gaur Alkatetza duen pertsonaren alderditik urrun. Hala ere, ez dute ezezkoaren frentea osatuko eta ez dira proposamenen aurka jarriko, proposamen horiek edozein alderditik etorrira ere, Alkatearena barne. Proposamen guztiak herriaren onerako diren edo ez aztertuko dute eta irizpide horrekin egingo dute lan.

Bukatzeko, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza ANV alderdiaren izenean. Lehenbizi, argi utzi nahi du beraiek ere bakearen alde daudela; bakea ez da inoren eksklusibotasuna. Halaber, denei eskaini dietela gobernu taldean sartzea argitu du baina denok dakizkigun arrazoiengatik hori ez dela posible izan eta, azkenean, gobernu taldea geratu den bezala geratu dela adierazi du. Amaitzeko, herriarengatik eta herriarentzako egingo dutela lan esan du.

gobierno en torno a un programa y que todavía no han visto el programa de ANV. Por parte de ANV se les ha dicho que en cuatro meses estará listo el programa de gobierno. Hasta ese momento han intentado trabajar en los puntos donde hay más discrepancia, que a su juicio son la paz y la normalización, en este sentido, han solicitado que se ratifique un acuerdo plenario que el ayuntamiento adoptó por unanimidad sobre este tema y sobre el derecho de todos los concejales a no tener escolta, y no han obtenido respuesta, por lo que entienden que la misma es negativa.

Toma la palabra José Morcillo. En primer lugar señala que el Grupo Socialista va a trabajar constructivamente desde la oposición. Evidencia que no se dan las condiciones y circunstancias para que el Grupo Socialista pueda entrar en la comisión de gobierno y así formar un gobierno de izquierdas, que es lo que al parecer ha votado el pueblo de Legazpi. Las fuertes discrepancias en temas tan fundamentales como la paz, la libertad y los derechos humanos nos diferencian del grupo de la persona que hoy ostenta la Alcaldía. No obstante, nunca serán un frente del no, nunca se opondrán 'per se' a las propuestas que vengan del cualquier grupo, incluido el grupo del Alcalde, analizarán las propuestas desde la óptica del mejor servicio del pueblo, actuarán en función de ese criterio.

Toma la palabra Erramun Uribeetxeberria en nombre del grupo ANV. En primer lugar quiere aclarar que ellos también quieren la paz, la paz no es exclusividad de nadie. También señala que han ofrecido a todos entrar en el equipo de gobierno, pero que por las circunstancias que todos conocemos finalmente la composición del equipo de gobierno ha quedado así. Acaba manifestando que trabajarán por y para el pueblo.

<p style="text-align: center;">UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p style="text-align: center;">2007/07/20</p>	<p style="text-align: center;"> LEGAZPIKO UDALA</p>	<p style="text-align: center;">ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</p> <p style="text-align: center;">20/07/2007</p>
--	---	---

Alkateak, arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabi minutu (19:52) direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 19 horas y 52 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 2007-9-26an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día: 26-9-2007</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p style="text-align: center;">Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p style="text-align: center;">Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>